

Sakanako Folklore

Folklore de la
Sakana

Josu Larrinaga Zugadi



24

colección
Lankidetzan
bilduma

Sakanako Folklore

Folklore de la Sakana

SAKANAKO FOLKLOREA

Alkate andrearen agurra	15
Mikel Aranburu: Hitzaurrea	17
Sarrera	19
Sakanako folklorearen alderdi zehatz batzuk	20
Udazkeneko zikloa	21
Eguberrietako zikloa	21
Inauterietako zikloa	27
Garizumako zikloa	37
Aste Santuko zikloa	37
Maiatzeko zikloa	39
Corpuseko zikloa	41
San Joan eta San Pedro zikloa	42
Zaindariaren jaietako zikloa eta zortzikoa	45
Bibliografia	50

FOLKLORE DE LA SAKANA

Saludo de la Alcaldesa	55
Mikel Aranburu: Prólogo	57
Introducción	59
Aspectos concretos del folklore de la Sakana	60
Ciclo de Otoño	61
Ciclo de Navidad	61
Ciclo de Carnaval	67
Ciclo de Cuaresma	77
Ciclo de Semana Santa	77
Ciclo de Mayo	79
Ciclo del Corpus	81
Ciclo de San Juan y San Pedro	82
Ciclo de las fiestas patronales y el “Zortziko”	85
Bibliografía	90
Bibliographic Section	93

Sakana eta auzo haranen esparru geografikoan, bertako jendearen talde bizitzak eskualdeko folkloreak jai-ospakuntzen bilakaera ziklikoan ordenaturiko hainbat alderdi agertarazi dizkigu mendetan zehar. Gertatu den ohiturazko osagaien amalgama horretan, elementu orokorrorak, partikularrak, ibar edo eskualde jakin batekoak, herri edo auzo batekoak, eta are tradizio desberdintasunak ere aurkitzen ditugu. Hori guztia bildu nahiz, ospe handiko ikertzaileen informazioak, ahozko ikerketak eta urteko jaien behaketa zuzenak erabili ditugu.

En la extensión del marco geográfico de la Sakana y vecinos valles, la secular vida en colectividad de sus gentes nos ha ido desgranando una serie de aspectos articulados por el cíclico devenir de las celebraciones festivas del folklore comarcal. Amalgama de elementos costumbristas generales, particulares de un valle o zona específicos de un pueblo o barrio e incluso, disparidad de tradiciones. Para ello, hemos recurrido a las informaciones de prestigiosos estudiosos, investigaciones orales y observaciones directas de las festividades anuales.

Dans l'extension du cadre géographique de la Sakana et des vallées voisines, la vie séculaire en collectivité de ses gens nous a énuméré une série d'aspects articulés par l'évolution cyclique des célébrations festives du folklore régional. Amalgame d'éléments de coutumes générales, particuliers à une vallée ou à une zone propres à un peuple ou quartier et même, disparité de traditions. Pour cela, nous avons eu recours aux informations d'études prestigieuses, de recherches orales et d'observations directes des festivités annuelles.



Sakanako Folklore



Josu **Larrinaga Zugadi**

Sakanako Folklore

Alkate andrearen agurra	15
Hitzaurrea	17
Sarrera	19
Sakanako folklorearen alderdi zehatz batzuk	20
Udazkeneko zikloa	21
Eguberrietako zikloa	21
Inauterietako zikloa	27
Garizumako zikloa	37
Aste Santuko zikloa	37
Maiatzeko zikloa	39
Corpuseko zikloa	41
San Joan eta San Pedro zikloa	42
Zaindariaren jaietako zikloa eta zortzikoa	45
Bibliografia	50

ALKATE ANDREAREN AGURRA

Altsasuko Udalak herriko historia eta tradizioak gordetu eta ezagutarazteko helburuarekin, 1995. urtean Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu zuen. Kultura mailan aurrera eramaten diren egitasmoen artean, gure kultur ondarearen azterketa ezinbestekotzak jotzen dugu; izan ere, egungo bizitzaren erritmo biziak memoria historikoa herritarrei gerturatzerara behartzen gaitu, historian baitago gure oraina eta geroa. Eskuaratean duzuen argitalpena, 1995ean gure kulturaren alde hartutako konpromezuaren lehenengo uzta dugu.

Honengatik, iraganari buruzko ikerketa sustatu eta iragan hori herritarrei jakinarazteko, orrialde hauetan Sakanako folkloreak inguruko ikerketa duzue; bertan Altsasukoak ezezik, Sakanako kantu, musika, dantza, jantzi eta tradizioen gaineko azterketa plazaratzen da; herri bakoitzaren tradizioen berezitasunera eta horretaz gain, Sakanako kultur ondarrera hurbilduz.

Arakil ibaiaren inguruan sortutako kultura eta ondare historikoa ezagutu eta berau bizitzera gonbidatzen zaituztet, orri hauek gure jatorriak ulertu eta gure oraina/geroa osotasunez bizitzeko aukera ezin hobea eskainiko dutelakoan.

Har ezazue agur bero bat.

Camino Mendiluze
Altsasuko Alkate Andrea

HITZAURREA

Tokiko administrazioak, beren autonomiagatik eta herritarrengandik hurbil daudenez, kultura kudeatzaile berezi gisa agertzen dira, gaitasuna baitute gabeziak egokiro diagnostikatzeko eta lehentasunak ezartzeko beti urri diren baliabideak hobeki erabili beharrez. Tokiko testuinguruan ikerketa proiektuak abiatzerakoan, funtsezkoa gertatzen da, muga ekonomikoaz gainera, ez aditurik, ez koordinatu eta ikuskatzeko beharrezkoa den antolamendurik ez izatea.

Egiatzatze horrek lan lerro bat bideratu zuen Eusko Ikaskuntzaren baitan, azken urteotan bizkortu egin dena, hots, ikerketa eta kultura zabalkundeko proiektuak burutzearren Udalekin sinatu hitzarmenak. Askotarikoak dira horien edukiak, herrien interesen adinakoak eta Elren diziplina sortaren heinekoak, eta udaletako politika arduradunen eta agindua ikuskatzea bere gain hartzen duen zientzia erakundearen arteko itun zentzuzko eta eraginkorra da hitzarmen horien arrakastaren arrazoia. Ekimen horren adibide egokia da irakurleak eskuetan duen lan hau: Altsasuko Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenetik sorturiko monografia eta Sakanako Folklorearen helburua duena. Josu Larrinaga Zugadi, antropologo eta folklorista aditua dugu lanaren egilea.

Udal batek bere folklorea lehentasunezko interesa duen gaitzat aukeratzea ez da ustekabekoa gertatzen gure egunotan. Are gutxiago Altsasu bezalako herria bada, kultura ondare inmaterial handi baten jabe dena eta kontserbatu zein eraberritu diren tradizioetan herri partaidetza sakon eta sentitua agertzen duena. Izan ere, tradizioak kontserbatu, zaharberritu eta are berritzeko lehiaren paradigma izan da Altsasu XX. mendearen azken laurdenean. Eta ezaugarri hori partekatu egiten du Sakana naturgunea moldatzen duten gainerako herriekin.

Begien bistakoa da argitalpen honen egokitasuna. Orri hauek bistaratzen diguten kultura ondareak gizarte artikulazio konplexua agertzen du, eta horrek orientatu du, barne-barnetik eta mendeetan zehar, Sakanako gizon eta emakumeen bizitza, XX. mendea aski aurreratutako artean. Doi-doi hamarkada gutxi batzuetan, hain bilakaera bizkorra gertatu da ezen, informazioaren gizar-tearen erdi-erdian, iragan hurbilarekin identifikatzeko zailtasunak dituzten belaunaldi berriek. Ez gaitu harritzen gaur egun folklorea esku hartzerakoan gehien zabalduko argudioa talde nortasuna babestearena izatea. Kultura ondarearen baliokide ez bada ere, horrek kolektibitatearen esentzia hutsaren ideia adierazten du, eta talde identitatearen ordezkartitza-eginkizuna bermatzen duen izaera sinbolikoa hartzen du.

Ondare kudeatzeari dagokionez, berregiteko jarduera barne, hala nola, adibidez, Altsasuko Inauteriaren eraberritze eta ondoko bilakaera prozesu

berezian, agerikoa gertatzen da gatazkan dauden identitateen estrategia jokoan, non kolektibitateek elkarri beha dauden, elkar aztertu eta neurtzen duten eta kanpoan erakutsi nahi duten irudia proiektatzen duten. Batzuetan, alabaina, folklorea norgehiagoka sinbolikoaren gune bilakatzen da eta haren elementuak borrokan erabiliak dira arma jaurtigai gisa. Hautaketa, aukera eta bazterketaren gainean egituratzen da esku hartzeko jarduera, bai eta, askotan, ideia ondarearen osagaien maneiuaren gainean, aurretik erabakita-ko identitatearen bertsio bat azpimarratu edo nabarmentzearen.

Tradizioa *asmatzeak* dakartzan forma eta funtzio aldaketak, hala nola gaur egun *ia* prozesiozko segizio bilakatu den Altsasuko Inauterikoak jasandakoa, esanahiaren edo erreferentziaren metamorfosia, *Lakuntzako pertza* belzetik laudatzera; neguko solstizioak biltzen duen sinboloen oparotasuna; gazteen antolamendu zaharra, taldeari dagokiona udalekoaren aurretik jartzten duen erakunde gisa; dantzaren esanahi juridiko konstituzionala, *Zortziko*, *Giza dantza*, *Alkate dantza*; erritualera eramaten diren erakundeen, taldeen edo estamentuen arteko gatazkak: desegokitasunak kristau sinkretismoan, sexu diskriminazioa, botere harremanen krisia, etab. Aitzakia ezin hobeak horiek kulturaren ulerkuntzan sakontzeko, gure diskurtsu intelektuaren unibertsoa zabaltzeko, ezen, Clifford Geertz-ek adierazi duenez, gizarte ekintzaren dimentsio sinbolikoak kontuan hartzea bizitzaren arazo existenzialen erdian murgiltzea da.

Folklorearen alorrean, herriaren onarpena eta babesa, folklore sormenaren beraren iturritzat hartzen dira, eta horren mekanismoak kontuan hartu beharra dago politika kultural zehatz bat diseinatzerakoan. Zaharberritze jardueran asko dira herriak –hartzaile eta protagonista– *ondare bilakarazi* dituen eraberritu edo susperturiko *tradizioak*; hemen, berritua aipatuko dugu Sakanako Inauterien kasu interesgarria, modu kontzientean berenak bezala hartu baitituzte, beste asko kultura antolamendu soil gisa geratu diren bitartean, identifikazio ezaugarririk gabe kolektibitatearentzat. Lehenengo kasuan, ondareak balio osoa hartzen du (*erabilera* balioa, *formala* eta *sinbolikoa*); bigarrenean, ordea, susperturiko tradizioa eskas du balio sinbolikoa. Folklorearen ekoizpen mekanismoetan bilatu behar dira esku hartze jardueraren ondorio desberdin horien kausak, eta hortik dator folklorea osorik aztertu eta ezagutzearen garrantzia, esku hartzeko edo ideia ondarea kudeatzeko planteamenduari gagozkiola.

Folklorea kudeatzeko eta bertan esku hartzeko politiken diseinuak, zein giza talderi zuzentzen zaion eta haren orientazio historiko eta kulturala ezagutu behar du, halako eran non dagozkion ondasun edo ekoizpen kulturelek izan zuten zentzua jakiten saiatu beharko duen, bai eta originalak imitazio eta itxuretatik bereizten ere. Sintesi teorikoari begira, alabaina, ezinbestekoak dira alde aurreko landa-lanak, etnografia azterlanak eta monografiak. Arretaz eta zorroztasunez eginak, interpretazio aurreiritzirik eta alferrikako daturik gabeak. Hemen, ahaleginez eta jakintzaz ekin dio Josu Larrinagak batere erraza ez den zeregin horri.

Mikel Aranburu Urtasun
Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako Lehendakariordea

SARRERA

Oro har, ikertu beharreko ikuspegiak eta alorrak zehazteko orduan, alderdi askotakoa ageri zaigu folklore tradizionalaren azterketa. Lan honetan, ondoko alderdiotara mugatuko gara:

- Gai esparrua:
 - Kantak eta musika
Herriaren arimarekin zerikusia duten era guztietako kantu eta musiken erreferentzia, eta horien erabilera edo funtzionalitatea hainbat jardueraren eragile gisa: diru biltzea, gorteko amodioa, lana, erlijiotasuna, dibertsioa, errituak, etab.
 - Musika tresnak
Gure kulturaren nolabaiteko zeregina edo ezarpena izan duten hots eta musika tresnen deskripzioa, osaera eta gizarte erabilera. Tresna horien egile eta joleen giza alderdia azpimarratzen da.
 - Dantzak
Dantza tradizionalen azterketa, horiek komunitate oso baten elementu plastiko, sinboliko eta erritueltzat harturik. Ezinbesteko aipamenak egiten dira dantzen deskripzioaz, testuinguruan jartzeaz eta horiekin loturiko alderdiez.
 - Jantziak
Eguneroko eta jaietako jantzien azterketa, horiek giza talde jakin baten eguneroko, jaietako edo erritueltako bizitzaren zenbait une berezirekin loturik dauden bezainbatean.
 - Ohiturak, tradizioak eta/edo horiekin loturiko errituak
Aipaturiko gai-alderdien multzoak hainbat ohitura, tradizio eta erritu daramatza loturik berekin; horiek gizarte gertakari bat dagokion testuinguruan jartzen laguntzen digute eta esanahiaren edo zentzu sinbolikoari buruzko argibideak ematen dizkigute.
- Garai edo jai testuingurua
Hurbiltze kronologikoa jai edo erritu gertakari horietara, horien garapen linealean eta, modu paraleloan, bai bizitzaren bilakaerari dagokionez eta bai edozein giza gizarteren egitura ekonomikoaren produkzio eskakizunei dagokienez.
 - Udazkeneko zikloa
 - Eguberrietako zikloa
 - Inauterietako zikloa
 - Garizumako zikloa
 - Aste Santuko zikloa
 - Maiatzeko zikloa
 - Corpuseko zikloa
 - San Joan eta San Pedro zikloa

- Zaindarien jaietako zikloa
- Bestelako ospakizunak.

Gaien eta kronologiaren arteko erlazioak edo bat egiteak bide ematen digu Euskal Herriko auzo, herri, haran edo eskualdeek izan duten folklore aberatsa deskribatzeko edo horien zirriborroa egiteko. Horixe da, hain zuzen ere, Sakana eskualdea xede duen lan honen kasua, non elkartzen diren Burunda, Arakil eta Aranatz haranetako herriak. Ahaztu gabe mugan dauden Ergoienako udalerrien aipamen zehatz batzuk.



San Donato.

SAKANAKO FOLKLOREAREN ALDERDI ZEHATZ BATZUK

Hainbat ibar eta dagozkien udalerriak biltzen ditu Arakil ibaiak bere ibilbidean zehar. Horiek guztiek hainbat ezaugarri komun dituzte geografia, jende, ekonomia, gizarte eta, jakina, kulturaren aldetik.

Sakana eskualdeari dagokionez, osatzen duten haranek hainbat kultura eta folklore ezaugarri agertzen dituzte. Horrenbestez, bertan aurkitzen ditugun ohiturazko alderdiak hainbat eratakoak dira: izaera orokorrekoak (Aste Santua, Santa Ageda, San Joaneko errituak, errogatibak, dantzak, etab.); partikularrak, haran edo geografia gune jakin batekoak (logikoaenez, administrazio barrutiak ez dira bat etortzen gertakari sozial edo kulturalen hedadurarekin, berau arbitrarioa izan edo ez), hala nola Zortzi-koaren kasuan; herrigune edo auzo bateko alderdi bereziak (Inauterietako ospakizunak, jai jakin bati dagozkion erritu eta ohitura bereziak, zaindaria-

ren jaiak, etab.), bai eta are izaera desberdineko alderdiak biltzen dituztenak (gaita eta danbolina batera agertzea, Soka dantza eta Ingurutxoak, euskara eta gaztelera, etab.).

Hemen aurkezten ditugun datuak hainbat iturritatik jasorik daude: hainbat aditu ospetsuk –José M^a. Satrustegi, Juan Garmendia, Resurrección M^a. de Azkue, Aita Donostia eta beste askok– bildurikoak, bertan egindako azterketa etnografikoak eta kontserbatu edo eraberritu diren tradiziozko jaietako ekitaldien ezin konta ahaleko behaketak. Ohartu beharrean gaude lan hau Eusko Ikaskuntzak Folklore Sailaren bidez agindua dela, eskualde berezi eta zabal horren alderdi tradizionalak ezagutarazi eta zabaltzearen.

Luzamendutan ibili gabe, mendez mende bazter eder horren talde oroi-menean estratifikatuz joan den folklore interesgarri eta berezian sartuko gara, hots, gaur egun jator edo nabarmentzekoa irizten diogun horretan.

UDAZKENEKO ZIKLOA

Nekazaritza eta abeltzaintza lanak prestatzeko aldia zen udazkena, bai eta, oro har, pilaketa aldia –egurketa, ikazketa, ehiza, jantzigintza, etab.–, neguteak ekarri ohi zituen egun gogorre buru egin ahal izateko.

Neguko hotzaren aurreko egunetan, Sakanan egin beharreko lanak, hein handi batean, ez ziren Atlantikoko isurialdean beste hainbat eskualdetan egiten zituztenen desberdinak izaten. Eta era berean, urri ziren jai kutsuko gertakariak: hildakoen edo asaben urteroko kultura eta txerri hilketa tradizionala, besterik ez.

Azken ohitura horrek ondoren zetozen ospakizunak iragartzen zituen eta horien erritmoa markatzen zuen. Ondo aprobetxaturiko animalia horren produktu saila (urdaia, lukainak, hankak, belarriak, etab.) janariaren euskarria zen etxeko bizitzan, bai eta auzoko bizitzan ere (gonbidapen, opari, laguntza edo emaitza gisa) negualdian zehar. Bakarrik Ekai-Arakil herriguneak ospatu ohi du San Martin jaiak (azaroak 11).

EGUBERRIETAKO ZIKLOA

Familia behartsuen edo eskaleen eskeak ohikoak eta ezinbestekoak gertatzen ziren negu latzean bizirik iraungo bazuten. Horrenbestez, eguberrietako jaien aurreko egunetan, pobreek areagotu egiten zuten beren ekina, etxez etxe zebiltzala, formula jakin baten arabera, *Pazkuen amorez* (Arruazu), janaria eskatuz eta egurra bilduz, *Pazkuen izenien egurtxueta* (Urdiain). Auzoen arteko elkartasun eta karitatearen alderdi hori zintzo errespetatzen zuen komunitateak. Erliziozko eginbeharra izateaz gainera, ohiko azturaren mailara jasoa zuten hura: Gabon gauean eskualdean zebiltzan ibiltari edo eskaleak etxera bildu eta afaria partekatuzera gonbidatzen zituzten.



Jentilarri. Aralar.

Egun batzuk lehenago, halaber, ohikoa zen enbor eder bat etxeraino garraiatzeko usadioa, gau berezi horretan erretzen zutena. Eguberriko enbor horrek *Gabonetako egurra* (Arruazu) edo *Gauon-supila* (Urdiain) bezalako izenak hartu ohi zituen.

Baziren, halaber, *Olentzero* izeneko ikazkin ezagunaren aipamenak, *jentilen* amaieraz edo *Kixmiren* etorreraz zaharrek haurrei esaten zizkieten kontakizunez gain. Aralar mendialde hurbilean giroturiko elezahar hura ez zen batere arrotza herrigune horietako biztanleentzat. Urdiaingo oroimen kolektiboak gorde egin du, nekez bada ere, pertsonaia pantagrueliko horri eskainitako kantu hau:

*Zapata txuriyek paperez,
iauriya dekala, baterez:
nagusi jaunari esango diagu
asiko ote gaan ero ez.*

*Orra, orra gure Olentzero
pipa ortziyen duela
ixerita dago,
kaponak ere bai ta
oilaskotxuekin,
bier merendatzeko
botella arduekin.*

*Olez, olez,
bakallu jalez,
bost eta sei amaika
xorixorik ez balin badago
igual dela lukainka¹.*

Eguberriko afaria aldatu egiten zen herrien, familien ahalen edo zegokien maila ekonomikoaren arabera –artzainak, abeltzainak, nekazariak, ikazkinak, etab.–, bai eta garaien arabera ere. Gehienbat, hauek izaten ziren afarri horren osagaiak: baratxuriz xigorturiko ogi mamien zopa eta arrautza frijituak; ondoren, bixigua, oilarra edo oiloa; gaztainak edo taloa esnearekin; konpota, orejoiak, aran sikuak eta pikuak; turroia, kafea eta kopa bat anis edo koñak.

Gero denborapasa egoten ziren Gauerdiko Meza entzuteko ordua bitartean, karta jokoan, elezahar eta ipuinak kontatuz edo otoitz eginez. Hori guztia, Jaiotza klasikoaren inguruan.

Urte Berriaren hasiera dela eta, hamabiak jotzean ura biltzea oso ohitura errotua da eskualdean. Ur hori agintariei edo komunitateari aurkezten zaie –edo aurkezten zitzaien– eta, batzuetan, eskea (*limosna biltzea*) antolatzen zuten gazteek. Honela kantatzen zuten Urteberriko egunean Irañetan:

*Urte Berrie egun ona
bai ta guk ere umore ona,
borondaterik baldin badezu
iriki zazu atarie.*

*Sentitzen zaitut, sentitzen
ari zerala segitzen
zure urdaien zarrastakua
oneraño dut aritzen².*

Egun horretan elkarrekin afaltzen zuten eta afalondoan, gazteen elkarte-ko maiordomo berria hautatu ohi zuten. Kargua uzten zuenak berria izendatzen zuen, modu sinbolikoan baso bat ardo eskainiz; maiordomo berriak laguntzailea (*lagune*) izendatzen zuen, biok nesken maiordoma hautatzen zuten, eta honek bere laguntzailea. Neska horri hiru txokolate tableta oparitzen zizkion maiordomoak, eta gero lau kargudunen artean jan ohi zituzten.

Etxarri-Aranatzen honela kantatzen zuten:

*Ur goiena, ur barrena
Urte berri egun ona,
Urte berri egun ona,
Bai ta guk ere umore ona.*

.....

1. SATRUSTEGI, José M^o. "Solsticio de invierno". 55. or.

2. GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. "Carnaval en Navarra". 143. or.

*Eguzu bada eguzu,
Borondaterik badezu
Borondaterik badezu
edo despedi gaitzazu³.*

Beren aldetik, Arruazun honela esaten zuten:

*Ur goiena, ur barrena
Urteberri egun ona,
Graziarekin osasuna
Pakearekin ontasuna
Jaungo(i)koak dizuela egun ona.*
.....

*Or goien goien iturri
Ura da txorrotik etorri
Etxe onetako zaldun gazteak
Amalau urre txintxarri⁴.*
.....

Agerikoa denez, gaur egun, gauerdia aldean hasten da Urdiaingo Urteberriko errituala. Mutil batzuek, tokiko iturri publikoetan kokaturik, pitxer bana eskuetan, Elizako kanpandorreko hamabietako kanpaiak amaitu arte itxaron eta urteko lehen ura biltzen dute. Hori egindakoan, lasterka ateratzen dira, altxor preziatua ez isurtzeko ahaleginak eginez, eta erretore etxean agertzen dira; bertan bilduriko herriko agintariei berri onen nahia kantatu eta opariren eskaintza egiten diete. Parrokoak tarta puska batera gonbidatzen ditu (lehen opila –gari irinez egindako ogi biribila– eskaintzen zien) eta gero zinegotzien artean banatzen du gozokia.

Duela urte batzuk, *kintoak* arduratzen ziren horretaz: bi mutil taldetan banaturik, beren lasterkariak aukeratzen zituzten. Behin agintarien aurreko zeremonia hori amaiturik, ibilera ongileari ekiten zioten herriko etxeetatik eta eskea egiten zuten uraren truke. Hona Urdiaingo gazteen kantua:

*Arantzatzu zer dekazu?
Ur goiena, ur barrena.*

*Ur goiena, ur barrena
Urte berri egun ona.*

*Etxe honetan sar dayena
bakearekin osasuna.*

*Bakearekin osasuna
Onarekin ondasuna.*

3. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". Zatia 201-202. or.

4. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". Zatia 197-198. or.

*Etxekoandre giltzaria
Iriki zazu ataria.*

*Iriki zazu ataria
badekagu ur berria.*

*Badekagu ur berria
presta zazu gosaria.*

*Etxe ontan oilar bi
Bat bestea iduri.*

*Etxe ontako etxekoandreak
Ama birjina dirudi.*

*Etxe ontako nagusi jauna(k)
Poltxia txintxirinduna.*

*Poltxia txintxirinduna
Zilarrez ezpataduna*

*Etxe ontako nagusi jaunak
Urre gorrizko bizarra.*

*Artxek, artxek eman dia neuri
Errieltxo biko zidarra.*

*Goien goien ilargia
Erdi erdian klabeliña.*

*Gure baratzan (dago) belar ona
Ark botatzen dau usai ona.*

*Izotzetan elurretan
Abenduko gau luzetan.*

*Beste guziak ohian eta
Gu, gaixuok, oinutsetan.*

*Eguzu bada, eguzu
Baldin eman nahi badezu.*

*Baldin eman nahi badezu ta
Bestela despegí gaitzazu⁵.*

Uharte-Arakilen, laburragoa zen kantatzekoa:

*Urte berri urte ona
hemen dakarregu ur berria⁶.*

5. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 204-206. or.

6. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 67. or.

Hiriberri-Arakilen, urteko lehen egunetan elkarteko gazteen urteko hautaketa egiten zen, egun horietan maiordomoa eta laguntzailea aukeratzen baitzituzten. Kartak banatzea zen hartarako bidea eta lehen jokaldian *errege ezpata* ateratzen zuenari banatzeko ahalmena ematen zitzaion. Berrero kartak banatu eta irudi hori ateratzen zuena maiordomo izendatzen zuten; horrek, berriz, laguna aukeratzen zuen. Kargua uzten zuten maiordomoa eta laguna ez ziren berrero hautatuak izateko aurkezten.

Urdiainek gogoan du nola Errege egunean jai bat egiten zen, eta jai hori Garcia Ximenez, Nafarroako lehen erregearen koroatzearekin lotzen zen. Egun horretan, neska eta mutilen lagun talde bakoitzak bere errege eta erregina izendatzen zuen eta horiek plazako ekitaldien buru izaten ziren. Egiteko zailak ziren soinekoz jantzirik ageri ziren errege-erregina horiek, xingola eta ispiluz beterik, mitra moduko tamaina handiko kapelu koniko bat eramaten zuten. Egun hartako bezperan, neskek mutilen afaria ordaindu behar zuten eta mutilek, beren aldetik, txokolatezko askari bat eskaintzen zieten Santa Ageda egunean.

Herri horretan urtean bi aldiz hautatzen zuten mutilen erregea, Errege egunean lehenik eta Santa Agedan ondoren. Elkarturiko gazte horiek berek ordaintzen zuten jaietako musika. Arduradunei *danderuak* deitzen zieten, eta dirua plazan, dantzaldian bertan biltzen zuten. Altsasun ere egun horretan egiten da erregeen hautaketa, ondoren datorren Santa Ageda egunean egingo duten *kintoen* ospakizunari begira. Meza amaiturik, urteko *kintoak* biltzen dira udaletxean alkatea buru dutela eta bertan txanpon batek seinalatzen du nondik hasiko diren kartak banatzen. Lau erregeetako bat jasotzen duen lehena diru zorroak eramateaz arduratuko da, eta bigarrenak makilan bilduriko *piper opilak* eramango ditu, hori baita neskek *-kinta* deituek- beren kidekoei egiten dieten opari tradizionala.



Joareen erregea. Altsasu.

Sakana aldean, Nafarroako lurraldeko beste hainbat eskualdetan bezala, joareak jotzen zutelara, haurrek herria zeharkatzeko ohitura izan da, eta hala da gaur egun ere. Antza denez, Errege Magoen etorrera orotarazten da horren bidez. Horrenbestez, Erregeen Epifania egunaren bezperan, isiltasunik ez dago Arruazun, goizaldetik arrats artean gerrikoan edo lepo inguruko idunekoetan joareak eramane ohi dituen haur tropa atergabearen ondorioz.

Altsasuk ere tradizio horrekin bat egiten zuen, eta egiten du, mutikoek soro-alor guztiak zeharkatzen baitzituzten joareak aldean zeramatatzatela. Beren arteko errege bat aukeratzen zuten, joa-

reen erregea deiturikoa, eta haren mende jartzen ziren. Gerrikoan, ardi larruaren gainean jarritako hamabi joareak ziren, eta dira, horren bereizgarriak. Gaur egun, jai hori egoera berrira moldatu da: herriko mutiko guztien artean egin ohi da pertsonaia horren hautaketa, opil batean ezkutatu joare baten bidez. Ondoren, lasterka abiatzen dira herri osoan zehar joareak jotzen dituztela.

INAUTERIETAKO ZIKLOA

San Anton Abadearen jaia (urtarrilaren 17a) abeltzainen ospakizun eguna da; egun hori ospatzen dute, orobat, animaliak galdu edo hilez gero, elkarren arteko laguntzari begira antolatu dituzten elkarteek. 1691n, Urdiango mandazainek San Anton Kofradia eratu zuten; komunitateko helduak biltzen ditu eta izaera gastronomikoa du elkarte horrek. Kofradia horrek bere arauak ditu, eta txandaka izendatu ohi duten Priore edo maiordomo bat egiten du horren buru. Egun horretan, elkarteko zaldizko gailenek hiru bira ematen zuten elizaren inguru, Kofradiako ikurrina aldean zeramatela. Gero, ikustaldi bat egiten zuten auzo herrietan. Arratsaldean, gazteak biltzen zitzaizkien, inauteri arropaz jantzirik, eta, musika lagun, intxaurrak biltzeari ekiten zioten herriko etxeetan zehar. Intxaur horiek egun gutxi barne ospatzekoa zen San Sebastian jairako gordetzen zituzten. Era berean, eskola umeak herriko asto guztiak elkartu eta haien gainean jarririk oihu egiten zuten:

*San Antón, San Antón
Guarda la mula y mata lechón⁷.*

Egun horretan Lakuntzako herritarrak erromerian joaten ziren San Anton ermitara.

Urdiainen, berriz, gazteek zozketa bat egiten zuten *erregea* aukeratzeko. Izendatuak, zegozkion atributuak hartzen zituen eta *erregina* seinalatzen zuen (gehienetan, arreba, laguna edo andregai). Jaia antolatzeko ardura hartzen zuen bere gain. Goizeko ibilera egiten zuten; orduan, *piper opil* tipikoak jasotzen zituzten nesken eskuetatik eta, ordainez, mutilek txokolatea hartzera gonbidatzen zituzten neskak. Ekintza sinbolikoa zen, eta are ezkongai egoeraren agerpena batzuetan. Ezkila jotzerakoan bazkaltzeko elkartzen ziren eta *erregina* zen mutil ezkongabeen mahaiaren zerbitzaria.

Lakuntzan San Sebastian jaia (urtarrilaren 20a) ospatu ohi zuten, haren ermitara joanez eta herrian zaindariaren jaia eginez. Hain handia zen Lakuntzako jendeak santuari zion debozioa ezen, errogatiba edo lehorte aldietan, parrokiara eraman ohi zuten haren irudia. Bezperako arratsaldean txistularia herrira iritsi eta kalejira bat egiten zuten, alkatearen etxetik abiatuta. Jaiaren

7. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 117. or.

egunean, goizeko zortziak inguruan, txistulariak diana bat jo eta gero, Arruazuko lurretan dagoen ermitara joaten ziren meza entzutera; gero, txokolatada egiten zuten eta Arruazura jaisten ziren, eta bertako plazan dantza askatuan egin ondoren, Lakuntzara itzultzen ziren. Bazkaria eta bazkalondoa amaiturik, gazteak udaletxeko sarreran bildu eta plazara joaten ziren elkarrekin, txistulariaren doinua lagun eta mutilen txalo eta jauzien artean. Plazan *Alkate dantza* egin ohi zuten. Kargudunek zahagi bat ardo, ogi eta gaztaren gonbita egiten zien bai dantzarietara eta bai gainerako jendeari ere, ardoa pitxerren bidez *bar-killoetan* zerbitzatzen zutela.



San Sebastian eguneko ardoa.

Urdiainen, salbak jotzen zituzten leiho eta baratzeetatik santua prozesioan eramaterakoan, Sebastian izeneko lau gizonak garraiatzen zutela. Meza egiten zuten etaazienda aske uzteko ohitura zegoen. Tokiko jaia zen. Udalak jartzen zuen ardoa herritarrentzat eta gazteek San Antonen bilduriko intxaurrak jaten zituzten. *Giza dantza* tipikoa ere ez zen falta, bisitari ospetsuen kariaz ere dantzatu ohi zen dantza horri zati bat eransten ziotela, eta ondoko hau kantatzen zuten:

*Hauxe da egia
zortziko berria
hiru txiki ardorekin
libera ogia⁸.*

8. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 120. or.

San Blas jaia (otsailaren 2a) berezia zen janariak bedeinkatzen zirelako eta Urdiainen bertan familiako guztiei *San Blasen ogia* deiturikoa ematen zitzaien jatera. Ogi horren hondarrak kutxetan jartzen zituzten –ez omen ziren urdintzen– eta legamia elizara eramaten zuten, beste hainbat janarirekin batera. Ohitura horren bidez bai pertsonen eta bai azientaren eztarriko mina saihesten zela pentsatzen zuten.

Euskal Herriko gainerako eskualdeetan bezala, ezin da ukatu Santa Agedaren bezperak duen eskaera eta babes izaera. Ez eta gazteriarekin eta bere elkar-teenkin duen lotura ere. Egun horretako koplak ez dira ohikoa denetik urruntzen:

*Bedinkatuba izen debilla
Etxe hontako jendiya
Pobre ta umil danarentzat
Badute borondatia(Altsasu)⁹*

*Zeruetara bihotzak altxa
Grazia eskatutzeko
Santa lageda(k) zer pasatu duen
Hoiei esplikatzeke (Arruazu)¹⁰*

Lehenago, Arruazun tximinien egoera begiratzen zuten gerta zitezkeen suteak saihestearren. Altsasun, ordea, neskak eskean zihoazen etxez etxe eta mutilek ez zuten hartan parte hartzen. Gaur egun, urteko *kintoen* jaitzat hartzen dute eta, berek hautatu erregeak buru dituztela, *kinta* direlakoen etxeak bisitatzen dituzte. Etxe bakoitzean dantza askatuan egiten dute bertako neskarekin eta horrek *piper opil* klasikoak eskaintzen dizkie. Ibilbideari jarraitzen diote, dirua edo opilak eskatzen dituztela, ilundu artean. Orduan *Zortziko* tradizionala dantzatzeari ekingo dio *kinto* bakoitzak.

Eskualde honetako eta auzo eskualde batzuetako ospakizun berezkoenen garaia zen Inauteri aldia –eta hala da gaur egun ere. Sakana osoan antzekoak izaten dira Inauteriaren garapena eta eitea (mozorro zigortzaileak, nekazaritza lanak irudikatzea, diru biltzeak, panpinak erretzea, haurren leloak, etab.), baina ezin konta ahal ezaugarrik bereizi egiten dute herri bakoitzeko inauteri jaia.

Atsasun, gizonezko ezkondu eta ezkongabeak *momotxorro* jantzian agertzen ziren: zaldi zurdak aurpegian, saski handi bat adartzarrez hornitua buruan, larruzko bizkarra, alkandora zuri mahukak jaso eta odolez tindaturiko besoak, txilinak edo joareak gerrian eta sarde beldurgarriak eskuetan. Gaur egun, 1982tik, hiri testuinguruak otzandu ditu pertsonaia horiek eta Astearte Inauteriko desfilean golde berezi bat daramatela ageri dira, aker bat buru duten *sorginak*, beteriko *juantranposoak* eta *maskaridak*, ohe estalki ñabarrez jantzirikoak, lagun dituztela.

9. SATRUSTEGI, José M^a. “Solsticio de invierno”. Enrique Celayak bilduriko zatia. 216. or.

10. SATRUSTEGI, José M^a. “Solsticio de invierno”. 209. or.



Momotxorroa. Altsasu.

Arbizun, Larunbat Inauterian hasten ziren *lyotiak*, *Aittun Haundiya* eta *Amiñ Txikiya* izeneko panpinak egiteko lanekin. Mozorroturiko gizon gazteek, zenbait emakumez jantzirik, marrega oihala eta ohe estalkiak erabiltzen zituzten; *txatarrak* edo *txatar jantziak* esaten zieten halakoei. Lizarrez moldaturiko bonba moduko batez armaturik, mundu guztia bustitzen zuten. Igandeko edo *lyote eguneko* arratsaldean ateratzen ziren eta haurrek ondoko leloa oihukatzen zieten:

*Txatar morro,
begi gorri,
urtian bein etorri,
sekula ez etorri,
begi gorri...¹¹*

Iluntzean, panpinak eta sokaz loturikoak erretzen zituzten kale erdian, era guztietako jauzi eta itzulipurdiak eginarazten zizkietela. Ondoren, hamarrak artean, dantza izaten zen akordeoi eta gitarrak lagundurik; ilun ezkilak markatzen zuen dantzaren amaiera, eta orduan baita mozorroak ere kentzen zituzten. Astelehen eta Asteartean, eskolako haurrak agertzen ziren *txatar jantzian*; iluntzean, eskean zihoazen "*pixkat, pixkat*" oihukatuz, urdaia eta lukainkak makila zorrotz batean sartzen zituztela. Asteartean berriro ikusten ziren gazte mozorrotuak; dantzaren ondoren eske aldia zetorren, akordeoiak lagundurik, *udaltzain* batek taldea gidatu eta lorturiko arrautzak saski batean biltzen zituela. Beste batek urdaia eta lukainkak makilan sartzen zituen eta diru biltzeaz arduratzen zen. Patatak, txerri belarriak eta postrerako ogi torradak ziren gehienbat egun horietako dietaren osagaiak.

11. GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. "Carnaval en Navarra". 24. or.



Panpinak erretzea. Arbizu.

Arruazun mozorrotuen arreta erakarri eta ondoko jazarpena eragitearren, lelo hau errepikatzen zuten haurrek:

*Mozorro zirri-zorro
atorra k.k. bete
Tira coces, tira coces
Maxkarito!¹²*

Bakaikuko *kamarro jantzi* deiturikoen, jantzi bitxiak eramaten zituzten eta haietako batzuek, mozorroturik, bi edo hiru metroko haga batez jotzen zituzten hanketan begira zeuden ikusleak. Beren aldetik, neskek kontu egiten zioten beren mozorro jantziari, aurpegia agerian zihoazela. Igande Inauterian gertatzen zen nesken lehenengo parte hartzea, eta gazte zein ezkonduak biltzen ziren hartara. Harmonika, gitarra, bandurria eta panderetak girotzen zuten plazako dantza. Ilun ezkila jotzean musika geratzen zen eta gazteak dibertitu egiten ziren afaltzeko ordua bitartean. Astelehena antzekoa zen. Astearte arratsaldean (Karnabal Asteartea), *kamarroek* golde baten parodia egiten zuten, eta beste pertsonaia batzuk, zaku oihalez jantzirik eta lastoz beterik, lagunek erreta ez zituzten saiatzan ziren, ihes eginez edo urez bustirik zebiltzala. Dantza herritarrak amaiera ematen zion jaiari. Inauteriko menuan ugari ziren patatak eta arrautza-irinetan pasaturiko txerri belarriak. 1936an desagertu zen jai molde hori.

Ekai-Arakilgo neska-mutilek urtero aukeratzen zituzten maiordomoa eta laguntzailea, Inauterian bete-beteen esku hartzen zutenak. Larunbatean ahari bat hiltzen zuten eta horixe zen jaietako bazkari eta afarien oinarritzko

12. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 178. or.

elikadura. Igande Inauterian eta Garizumako lehenean, Hausterre Egunarekin batera, eskean ibili eta arrautzak, urdaia eta lukainkak biltzen zituzten, gitarren soinua lagun zutela. Produktu horiek neska eta mutilen jaietako dietari eransten zitzaizkion. Igande Inauteriko eta Hausterre Eguneko gauetan, gitarra eta dantza nahitaezkoak gertatzen ziren maiordomoaren etxean. Halaber, Igande Inauterian etxe horretan panpina bat egiten zuten zatar eta lastoz, *Atixarko* izenekoa, mozorrotu gabeko bi gaztek lurretik arrastaka eraman ohi zutena. *Moxorroek* osatzen zuten segizioa, eta ibileraren amaieran, abiapuntura itzulirik, erre egiten zuten panpina. Azken eguneko afarian jaietako gastuen kontuak egiten zituzten.

Etxarri-Aranazko mozorrotuak *txatarrak* ziren, Iturmendikoak *jitomoxorroak*, eta Irañetakoak *xomorrok*. Irañetakoen janzkera: galtzontziloak, alkandora zuria, gerriko gorria, lepoko gorria, txapel beltza, kolore anitzeko xingolak sorbaldan eta bizkarrean, abarkak oinetan eta erratz lokaztu bat eskuan, horrekin jende gutzia zikindu nahiz zebiltzala. Goizetik, Igande Inauterian (*Iote Igandea*) *xomorro* gazteak maiordomoaren etxean biltzen ziren eta odolkia ardoarekin gosaltzen zuten, gitarra eta akordeoiaz lagunduriko eskea hasi aurretik. Arrautzak saski batean jartzen zituzten eta makila zorroztu batean, urdaia eta lukainkak. Nesken etxean pixka bat dantzatu eta ezpela jartzen zuten, kolore anitzeko xingolez apaindurik. Biltzen zutena ahari edo ardiarekin batera bazkaltzen zuten gazteen ordezkariaren etxean.

Arratsaldean, dantza antolatzen zuten neskaren baten etxeko atarian eta amaitu ondoren maiordomoaren etxera itzultzen ziren afaltzeko. Astelehen eta Asteartean ez zuten eskerik egiten eta bigarren egun horretako arratsaldean, lastozko panpina bat egiten zuten (*Antxon zarkua*), gurdian paseatu eta erre egiten zutena.



Mozorroak. Arbizu.

Ihabarko *moxorroak* honelako janzkera eraman ohi zuen: galtzontzilo luzeak eta kamiseta zuria, abarkak edo espartinak, lastozko kapelua, oihalez forraturik eta xingola luzez apaindurik (bizkarrean behera eroriak), mozorroturik, erratza eskuan, eta haietako batzuek joareak edo kaskabioloak zeramatzaten. Beste gazte batzuk *landarrak* ziren, hau da, ohe estalki bat sorbaldan eta oinetan abarkak edo espartinak jantzita zebiltzanak. Pertsonaia horiek baketsuak ziren. *Moxorroak*, aldiz, errukirik gabe jokaten zuten haurrekin: hainbat irain –belauniko ezarri, otoitz eginarazi, aurpegia lokatze zikindu, esanezinezko aldean musua emanarazi, erratz kolpeak, etab.–jasanarazi ondoren, aske uzten zituzten haurrak.

Ihabarren, Igande Inauteriko arratsaldean abiatzen zen jai zikloa. Mozorro horiek agertzen ziren eta leku itxi batean (frontoia edo ganbara) dantzaldia egiten zen, txistulari edo akordeolariren baten soinuekin. Elkarturiko gazteen-izat, Astearteko goiza otordu batez hasten zen (arkume barrukiak eta ardo hartu ohi zituzten); hori, bibolin eta gitarra lagun, egin beharreko eskearen aurreko ekitaldi gisa. Bilduriko arrautzak saskian eta urdaia edo lukainak gerren batean jartzen zituzten. Maiordomoa eta laguna banda ñabar gurutzatua jantzirik, beren neska lagunekin segizioa ixten zuten, musikarekin batera. Arratsaldean, *Aitezarko familia* pantomima antzezten zuten. Hona pertsonaiak: *Aitezarko*, lastozko panpina, asto baten gainean eramaten ohi zutena; *Landara* emazteaa (zaia, baska, zapia buruan eta oinetako klasikoak), eta haien umetxoak (*ninia*, zur tailatuzko puska bat, haur oihaletan bildua). *Landarak*, aldian-aldian, bularra ematen zion *niniari*, *moxorroek* kentzen zioten umea eta negar edo oihu egiten zuen berak. Azkenean, emaztearen gehiegizko negar zotinen aurrean, *ninia* horma baten kontra apurtu eta *Aitezarko* erratz kolpez desagiten zuten edo su ematen zioten. Jaia amaitzeko, dantzaldia eta afaria (ardia eta arkumea txilindron erara, fruta eta maiordomo eta lagunaren neskek egindako *piper opilak*).

Ondoko larunbat gauean, eskean bildutakoaren hondarrak afaldu eta maiordomoa eta laguna aukeratzen zituzten. Kargua uzten zuenak ezkutuan aukeratzen zuen ondorengoa, eta hori baso bat ardo eskaintzean sinbolizaturik zegoen. Aukeratuak, bere aldetik, laguntzailea aukeratzen zuen eta handik astebetara bestaren kontuak egiten zituzten.

Olaztin, Lardero Osteguneko goizean, bertako ahuntzaina zebilen eskean, saskia eta zaku zuria aldean eraman ohi zituela. Lukainak, urdaia, artaburuak eta dirua biltzen zituen. Igande (*Zamar txiki*) arratsaldean, neskak, mutiak eta ezkonduak *zamar jantzita* ateratzen ziren. Horiek aurpegia ikatzez edo betunez belzten zuten aurpegia, batzuek ardi edo hartz itxurako mozorroak zeramatzen, joare eta kaskabiloak larruzko lepokoetan ezarririk. Haurren atzetik joan, edonor harrapatu eta aurpegia lohiz edo simaurrez zikintzea zen horien egitekoa. Jaiaren amaiera gisa, txistu eta danbolinak alaituriko dantzaldia izaten zuten.

Asteartean (*Zamar aundi eguna*) *zamar jantzi* horiek kalea berriro bereganatzean iristen zen jaiaren goreneko unea. Dantzaldiaren ondoren, eskearen ibilbideari ekiten zioten txistulariekin, poltsa batean dirua eta bikote bik eramandako saskitan janariak –urdaia, artoa, ogia, lukainak eta odolkiak– biltzen zituztela. Diru horren bidez eta artoaren salmentatik lorturikoaz ordaintzen zuten bestaren gastua. Soberakinak izatera, parte hartzaileen artean banatzen zuten. 1937an geratu zen bertako Inauteria, nahiz eta duela lau urte inguru berreskuratu den.

Hiriberri-Arakilen, aukeraturiko gazteen maiordomoak eta laguntzaileak hainbat eginkizun hartzen zituzten beren gain: ardi edo ahardi bat erosi, musika kontratatu, bilera gastronomikoez arduratu, kontuak aurkeztu eta kitatu, etab. Gazteek igande goizean egiten zuten eskea, gitarra eta bandu-

rriaren musika lagun. Tabernatik abiatzen ziren, arrautzetarako saskiak eta lukainketarako makila eskuan. Itzultzean bazkaldu egiten zuten (zopa, txitxi-rioak, aharia edo ardia, ardoa, kafea, koñaka eta anisa). Arratsaldean, mozo-rrotuta, haurren atzetik ibili eta jo egiten zituzten erratzekin. Ondoren, txistu eta atabalez, gitarra edo bandurriaz, edo akordeoiaz alaituriko dantzaldia izaten zuten; dena ilun ezkilak jotzean amaitzen zen.

Jarraian, eta hiru egunen ezaugarri komun gisa, gazteek elkarrekin afaltzen zuten eta gauean errondan egiten zuten kantu kantari. Asteartean, goizgoizik gosaltzen zuten tabernan (gailetak anis eta koñakarekin), goiz erdian hamaitakoa hartzen zuten (gazta, txorixoa, ogia eta ardoa) eta gero bazkariari ekiten zioten (ardi edo ahardi zopa eta horien haragi gisatua). Arratsaldean *mozorroek* mundu guztia molestatzten zuten eta, 1903 urte arte, txotxongilo txiki bat (*Itxitxarko* edo *Aittitxarko*) atera ohi zuten, haga luze batean sarturik zeramatela. Txotxongiloa jipoitu eta, bazterren batean botatzen zuten. Ondoren, dantzaldia, afaria eta azkeneko erronda izaten ziren.

Momoxarroak edo *momuxarroak*, *lasta-lazaruek* eta *mantajuna* dira Urdiaingo hiru mozorro motak. Lehenengoak beren dotoreziaz nabarmentzen ziren: gona gorriak, artilezko gerruntzea eta borlak. Guztiz bestelakoak ziren bigarrenak: larruz eta zatarrez jantzirik, joareak eramaten zituzten edo arto hostoz beteriko koltxoi estalkietan sarturik zebiltzan, eta horrek mugikortasuna mugatzen zien. Azkenekoak, berriz, ganadu bazka biltzeko maindireak zeramatzen apaingai. *Lasta-lazaru* horiek ugari ziren, beldurgarriak eta gogorrak haien ekintzak.



Momoxarro. Urdiaín.

Plazan, nekazaritza lanak (gari ereintzea, landatzea, ongarrizatzea...) eta ohiko eginbeharrak antzeten zituzten gehiegizko imintzioak eginez. Zarpail jantzitako bik azak eskuz landatzen zituzten eta beste batzuek ureztatu egiten zituzten inbutu handi batzuk erabiliz. Panpina baten bataioa itxuratzen zuten eta litxarriak banatzen zituzten. Torero biluzi bat, elurte gorriaren erdian, torero jantzia larruan margoturik. Bufoi batek girotzen zituen pausaldiak bere xeblekeriez. Hitz batez, ikusle ugariak dibertitzea eta horien barrea lortzea zen ezin konta ahaleko parodia horien helburua. Halaber, zurezko panpina asko ziren, *Alikote* izenekoak, gorputz adarrik gabeak. Plazan, ilun ezkila jotzean, udaltzain baten begiratu zorrotzaren mende, denek mozorroa kentzen zuten eta jaia amaitzen zen.

Gaur egun, *momuxarroak* (*lasta-lazaruek* edo *mantajuna* gisa jantzirik) bakarka ibili ohi dira, norabide jakinik gabe, beren makilez oinetan jotzen dutela aurrean harrapatzen dutena. Eta bazterretan aditzen da, eta ez gutxi, hurrek mozorrotuei zuzentzen dieten leloa:

*Momuxarro xirri-kiti-xarro
esportero, bolinero,
zaia jan eta putza bero
arre konpañero!*¹³

Ziordian, Lardero Ostegunean, diru biltzea egiteko ohitura zegoen; harako hartan, bi gaztek lagunduriko ahuntzaina, behortzaina, behizaina eta landa zaina bilzen ziren. Goizez ibiltzen ziren eta danborra joz iragartzen zuten beren etorrera. Saskiak, zakua eta poltsa eramaten zituzten arrautzak, txirioak eta dirua biltzeko. Ahuntzainaren etxean afaldu ohi zuten.

Igandean (*Domekan Karnabala*), mutikoak eta neskatoak mozorrotzen ziren eta helduak zirikatzeari ekiten zioten. Astearte arratsaldean, gizon eta emakume gazteak, bai eta ezkonduak ere, mozorrotu egiten ziren (*zomorrok*); jendeari adarra jotzea eta haurrak izutzea zen haien zeregina. Noizean behin, lastozko panpina bat erretzen zuten plazan. Txistulariaren soinuak dantzatzu amaitzen zen jai.

Hurbil dagoen Ergoiena aldera iraganik, bi Inauteri nabarmen ditzakegu: Unanukoa eta Lizarragakoa. Bigarrena, 1936an desagertua, Astearte (*lote Eguna*) arratsaldean ospatzen zen bakarrik; han hirurak aldean, eskean ateratzen ziren hainbat talde:

- 18 urtez gorako mutilak
- 12-18 arteko mutikoak
- 18 urtez gorako neskek
- neska gazteagoak edo neskatoak

Dirua biltzerakoan, talde bakoitzak diru poltsa, arrautzetarako poltsa eta urdai eta lukainketarako gerrena eramaten zituzten. *lote egiteko urdai puska* esanez abisatzen zieten etxekoei. Gero koplak kantatzen zituzten, esker onekoak edo haserrezkoak. Emaizak taldekoen adinaren arabekoak ziren. Gazteak, mozorrotuta haietako batzuk, tabernatik abiatzen ziren, akordeoiaren musika lagun zutelarik. Gero afaldu egiten zuten (bildutakoa eta arkumea) eta neskek afaltzen zuten lekura joaten ziren eta han dantza antolatzen zuten gauerdi arte.

Beste taldeek Bateko urrea (tortila) atereaz aukeratzen zuten etxea; bazkaltiar bakoitzak babarrun gorrien parte bat eramaten zuen hartara, eta hori bildutakoarekin batera jan ohi zuten. Bazkaltiarren artean baziren mozorroturiko batzuk, eta baziren pandereta jotzen zutenak ere.

13. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 152. or.

Unanuko Inauteriak (*Iyoteak*) Igande Inauteriko edo *Mamoxarro txikien eguneko* arratsaldean hasten ziren. 15-16 urteko mutikoak honela moztrotzen ziren: zetazko lepokoa buruan, mahuka luzeko kamiseta, kaltzontzilo zuri luzeak, gerriko gorri edo beltza, kaskabiloz hornituriko larruzko gerruntzea galtzarbe-uhalean, oinetakoak (abarkak, botak, zapatilak edo zapatak), latorrizko edo burdinazko maskarak (*karatolak*), batzuetan xingoladun kapelua buruan eta makila luzea eskuan, horren bidez haurrak mehatxatu eta uxatzen zituztela. Haurrak eta neskatoak ziren haien eraso oldarkorren xedea; gupidagabeki jokatzeko jendearekin (makilan edo oinetako lokaztuetan musu ematera behartzen zituzten beren biktimak) eta nekaezinak ziren (gogoan dituzte oraindik Dorrao edo Lakuntzarainoko jazarpenak). Gauean, bilketa egiten zuten, txorixoa edo urdaia makilan sartu eta arrautzak aparte jartzen zituztela. Tabernara itzulirik, bildurikoa afaldu ohi zuten.



Mamuxarro. Unanua.

Astearte arratsaldean (*Mamoxarro haundien eguna*), 17 urtez gorakoak (*kinten* adinakoak) ateratzen ziren eta eskea antolatzen zuten, akordeoi edo gitarra eta panderetaren soinua lagun. Modu askean jantzitako beste gazte batzuk ateratzen ziren haiekin batera, *muttuak* deiturikoak. Diru biltzea amaiturik, afaltzera joaten ziren eta afaria bukatutakoan, dantzaldia izaten zuten plazan edo udaletxean. *Mamoxarro* horiek, makila luzeak eskuan, mundu guz-

tia astintzen zuten; hala ere, jendea (haur eta mutiko koxkorrak gehienbat) oihuka ari zitzairen atertu gabe:

*Mamoxarro xirri xarro,
keteriako, zazpiña
uzker apariako
zata begi gorri,
urten bein etorri!*¹⁴

Hori baino lehen, aurreko egunetan, *erregea* eta *erregina* (mutilen erre-gina) aukeratzen zituzten, eta horiek arduratzen ziren jaien antolaketaz. Gaur egun, Inauteri horrek mantentzen du, hein handi batean, adierazitako fisonomia.

GARIZUMAKO ZIKLOA

Hausterre Egunak doitasun garaia markatzen zuen Sakanako herrietan, jatekoari eta bestari dagokienez. Bertako biztanleak, musika eta dantzak alde batera utzirik, beren ohiturak zaindu eta modu ez nabarmenez dibertitzeko beharturik zeuden: paseoak, solasak, joko bakunak, etab. Berrogei egun ematen zituzten giro beretsuan, Aste Santuaren garaia prestatzearren.

Urdiain eta Arruazuko haur eta mutikoak lozazko eltze zaharrak puskatze-ra jostatzen ziren, alde zurretik etxeetan honako lelo honen bidez eskatuak zituztenak

*Eltze berri, eltze zar
zumia gari, zumia jan
betor bedi Pazko!*¹⁵.

Bi mutikoren artean eramaten zituzten lurrezko eltze eta ezin erabilizko ontzi horiek, bai eta makila zorrotz bat ere, eskura zitzaketen urdaiak, lukainkak etab. bildu ahal izateko.

Era berean, *atxikan* izeneko beisbol moduko batean aritzen ziren, errepi-dean edo plaza erdian.

ASTE SANTUKO ZIKLOA

Aste Santua, ospatzeko eta gertatzeko eran, ez zen bereizten beste lekuetan egiten zenetik. Erramu Igandean hasten zen eta Bepizkunde Igandean amaitzen zen eta, modu pedagogikoan, Jesus Nazaretekoaren nekaldia, heriotza eta berpiztea oroitarazten zituen.

14. GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. "Carnaval en Navarra". 223. or.

15. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 183. or.

Oro har, Sakana osoan oroitzen dira karrakez eta beste hainbat zarata motaz (mailu, oin, banku, harri eta abarrek... sorturikoak), zeintzuk, Donabera klasikoan, tenebrarioaren azken kandela itzaltzean hasten ziren. Asteazken Santuko egintza horri *Judasi kapa haustea* esaten zioten eskualdean eta, herri sinistearen arabera, apostol traidorea, edo deabrua bera ere, haien egite gaiztoetatik desbideratzen zuten halakoek. Kristo hiltzean ustez gertatu zen lurrikara haren azalpen bitxia hauxe. Behin baino gehiagotan, zalaparta orokorra eta argirik eza aprobetxatuz, emakume elizkoien gonak lotu edo oholtzan iltzatu egiten zituzten txantxazale batzuek.



Karraka. Unanua.

Horren aurretik, egun berean, elizan Monumentua egiteko lan neketsu eta artistikoan, Arruazuko haur txikiek herrian barna ibili ohi ziren, honela kantatzen zutela:

*Angelitos somos
del cielo bajamos
agujas pidiendo
para el Monumento;
si nos dan, no nos dan
las puertas pagarán.*

*Aquí somos cuatro
cantaremos dos
una limosnita
por amor de Dios¹⁶.*

16. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 183. or.

Ostegun eta Ostiral Santuak bildutasun, penitentzia, erlijiozko ospakizun eta prozesio berezietarako egunak ziren. Burundan, nazareno eta txanodunek, paradoxikoa bada ere, *momotxorroak* izena hartzen zuten. Urdiaingo berezitasunen arteko bi: Ostegun Santuan, artzainak menditik jaisten ziren sorginen bel-durrez eta emakumeak egun horretan ez ziren garbitzen ez eta orrazten ere.

Larunbat Santua egun seinalatua zen Kristoren berpizkundearen garrantziagatik; egun harretan garrantzi handia hartzen zuten ur bedeinkatuak, bazko zuziaren suak eta izadiko elementuek (harri eta landareak). Modu horretara, Urdiaingo emakumeek, gloriako kanpaiekin batera, hiru *sorgin belar* mota hartu eta koltxoien azpian jartzen zituzten, etxea sorginen erasoak saihesteko asmoz. Burunda osoan, aldiz, *Santiago harriak* deituriko fosil batzuk bildu eta etxeetako leihoetan jartzen zituzten, tximista eta trumoieta-tik babesten zutelakoan. Era berean, Urdiainen elorri bedeinkatua jartzen zuten galsoroetan, kazkabar eta harri jasari aurka egitearren. Ondoan den Arruazun, parrokoak herriko etxeak bedeinkatzen zituen banan-banan eta segizioa eliz mutilek, ur bedeinkatuarekin batera, bi saski eramaten zituzten emandako arrautzak, laranja eta dirua biltzeko; arratsaldean, horrekin guztiarekin, askaria egin ohi zuten.

Pizkunde Igandean, goizez, Lakuntzako emakukeek Madalenaren ermitara joaten ziren eta itzultzean piztueraren poza kantatzen zuten:

*Zer esaten didaz Madalenia?
Resuzitatu dala beroren semia
Ay, au gozua! Ay, au gozua!
Pazko eguna da ta gloriosua*¹⁷.

MAIATZEKO ZIKLOA

Ziklo honek Apirila eta Maiatza hilabeteak hartzen ditu, naturaren loratze aldia eta alorre ardura handiena eta bedeinkapenak eskaintzeko garaia. Udaberria eguraldi txarretatik labore eta herriak babesteko garaia da, ura edo sasoiari dagokion klima eskatzeko errogatibak eta ezin konta ahal erro-meria egiteko garaia.

Testuinguru honetan, Aingeru Goardakoaren jaia ospatzen zen Irurtzunen eta hartara biltzen ziren eskualde guztiko pertsonak. Alabaina, eskualde horretan, berez distiratsua gertatzen da Aralarko San Migel Goiaingeruaren erronesaldi elizkoi luzea. Haren ibilbidea (gaur egun autoz, lehenago oinez) Pizkunde Igandeko arratsaldean abiatzen da; Santutegi enigmatiko horretako Kaperauak eta laguntzaileak (San Migelen irudia haga baten gainean daramatela) Baraibarren pasatzen dute gaua eta ondoko egunean bisitatu beharreko lehen herrira iristen dira, Betelura hain zuzen. San Joan pasa arte, arkanjelua Nafarroako geografian zehar ibiliko da etengabe. Beti erritual bera betetzen da bisitaturiko

17. JIMENO JURIO, José M^a. "Calendario festivo. Primavera". *Panorama* 15. zk. 29. or.

herrietan: harrera egitea dagokion herrian, parrokiako gurutzearen eta irudiaren arteko musua, alorren bedekapena lau puntu kardinalen arabera, letanien kantua, elizkizuna edo meza, bertaratu elizkoiek musu ematen diote irudiari eta, arratsaldean, San Migelek tokiko gaixoei egiten die bisita. Erromesaldi luze hori eten egiten da Jaunaren Igokundearen ondoko larunbatean Uharte-Arakilen egiten diren errogatibengatik, edo haren santutegirako egiten den erromesaldia eta Mendekostean egiten diren haran osokoak direla eta.

Pazko Maiatzekoak Espiritu Santuaren etorrera ospatzen du, eta hori Kristoren Pizkundetik berrogeita hamar egunera gertatzen da. Urdiainen, danbolinak alde egiterakoan, jendeak bira handi bat ematen zuen eskutik heldurik, kanta honen konpasean:

*Pazkuetan dan alagerena
Pazkua Mayatzekua.*

*Pazkua Mayatzekua zan da
Jaiki nintzaren goizian.*

*Jaiki nintzaren goizian eta
Pasiatzeko kalia.*

*Pasiatzeko kalia eta
Egunian edo gaubian.*

*Egunian edo gaubian eta
Izarra argi donian.*

*Izarra argi donian eta
Laztantxuaren aurrian.*

*Neure lazтана kalean dabil
Aide aundiak konplitzen.*

*Aide aundiak konplitzen eta
Konbitearen emaiten.*

*Neroni ere konbiaturik nago
Eztai ortara juaten.*

*Egun bat lagun ikus nituben
Atal ondoan sartutzen.*

*Beste orrenbeste edo geiago
Eskaleretan iyotzen.*

*Nere lazтана ´n eztai oietan
Guk jan genduben usoa.*

*Beste guziak kunplitu eta
Laztanendako egoa.
Nere lazтана mai goienian
Ni barrenian egoiten.*

*Goguak baretz, baretz baretz da
Biotzak ez du laguntzen.*

*Ark neri gainu, nik ari gainu,
Alkar genduben penatzen.*

*Alkar genduben penatzen eta
Arimea ´re lainatzen.*

*Estudiante barbailasku bat
Asi zitzaigun igartzen.*

*Asi zitzaigun ubartzen eta
Asi zitzaigun kargu artzen.*

*In sekulorum gerta eztaielea
Meza berria ematen.*

*Meza berria ematen eta
Epistolaren kantatzen.*

*Epistolia kantatzen eta
Urre kalizia goratzen.*

*Estudiante barbailaskua
Noiz eman bear dok mezea?*

*Ire mezearen diruarekin
Egín behar diat lobe¹⁸.*

Pazko Maiatzekoan, Arakil haran osoa erromesaldian joan ohi da Aginagako Trinitatearen ermitara.

CORPUSEKO ZIKLOA

Hirutasun Santuaren igandeak, aldez aurreko jai gisa, Corpusen ospakuntza iragartzen du. Egun horretan, Urbasa mendialdean den Santa Marina ermitarako erromesaldia egiten dute Iturmendi eta Bakaikuko biztanleek.

Corpus Christi edo Bestaberri jaia eta dagokion zortziurrena, Ostegun eta ondoko igandeko ospakizunetara mugatzen zen. Debozioa eta ospe handia izan dira XIII. mendetik instituzionalizatu zen Bestaberri honen ezaugarriak. Egun horri dagozkio prozesioak, kale alfonbratuak, leiho eta balkoi apainduak, kaleetako aldareak, elizkizunak, dantzak, loreak, etab.

18. AZKUE, Resurrección M^a. "Cancionero popular vasco". II. libk. *Romances y cuentos* 885. zk. 1027-1029. or. Satrustegiren oharra E-34. or. eta Urdiainen 1977an bilduriko ahozko informazioarekin erkatua.

Gipuzkoa eta Nafarroako ibar hurbiletatik joan ohi diren erromes ugariaren erakargune bihurtzen da Aralarko San Migel santutegia. Zuhaitzi baten itzalpean ematen dute meza eta horren ondoren Sakramentu santuaren palio azpiko prozesioa egiten da. Duela zenbait urte arte, palio hori mendi horretako artzainek eramane ohi zuten, hartarako brusa beltza, lepokoa eta eskularru zuriak jantzirik. San Migelen irudia ikustera joaten da jendea, Teodosio Goñiren kateetatik pasatzen da eta leize-zulotik begiratzen du deabrua dragoi itxuran ikustearren, eta parte hartzen du pertsona ugari biltzen duen erromeria alaian.

Sakana osoan zehar, herri bakoitzeko prozesio xumeek belarreko bidea zeharkatu eta kaleko aldareak bisitatzeko dituzte. Alabaina, Lakuntzako ospakuntza nabarmendu beharrean gaude.



Bestaberri. Lakuntza.

Meza Nagusia entzun ondoren, Corpuseko prozesio klasikoa egiten da. Udalbatzak ekitaldi bietan parte hartzen du herriko banderarekin, txistulariaren atzetik joaten direla. Arratsaldean, udaltxearen aurrean biltzen dira gazteak, zumezko haga bi daramatzate eskutetan, azalean labanaz egindako apaindurak dituztenak. Lerroan jarri eta haga horien bidez loturik, plazan sartzen dira, bertan Alkatea buru dela, eta *Alkate dantza* hasten dira dantzatzen. Hori amaiturik, udalbatzak ardoa, ogia eta gazta oparitzen dizkie parte hartzaileei. Gero, *Ingurutxoak* dantzatzen dituzte. Egun bat geroago, txistulariak eskea egiten zuen etxeetan eta, azkeneko jai egunean, dantzatera gonbidaturiko neskek piper opilez ordaintzen zuten.

Ekainaren 13an, Etxarri-Aranatzeko jendeak erromeria egiten du San Kiriakoren ermitara eta San Adrian egunean (ekainaren 16an), gaita lagun, prozesio-erromerian joaten ohi dira, apaizak letaniak esaten dituela eta mutilek sorbaldan eramaten dute santuaren irudia haren berezko egoitzara, ermitara. Erromeriak bertan jarraitzen du, bazkaria egin eta dantzak ilunabarra arte iraun ohi duela.

SAN JOAN ETA SAN PEDRO ZIKLOA

Arruazuko mutilak San Joan bezperako gauean, basozainaren zaintzari ihes eginez, Aralarrera igotzen ziren pagorik dotoreena ebaki eta San Joan egunean landatzeko. Lizarragan, kide berriak (18 urte betetik, ordu arte *mutikoak* zirenak) *mutilen* taldean sartzeko baliatzen ziren bezperako egun horretaz. Hartarako, tabernan bildurik, sartzeko zirenek, ezinbestean, litro

bat eta erdi edo bi pinta ardo ordaindu behar zizkieten lagun eta adiskideei. Hori ez zen nesken artean egiten. Ekitaldi hori 1958 inguruan desagertu zen.

Urdiainen alorretan barna ibiltzen ziren, ilinti irazekiak eta zahagiak sutan zeramatzatela, hainbat formula erritual esaten zituztela:

*Ala zuze, zuze!
Ala gari, gari!
Gaur artian belar,
ta hemendik aurria gari!*

*Orain artien behar (belar),
hemendik aurrea gari!¹⁹*

Herri berean, bezperako egun horretan bertan, neska gazteek eskutik heldurik, ermitaren eta suaren aurrean, ondokoa kantatzen zuten, eta kantatzen dute:



San Juan errituala. Urdiain.

*Egu bai egun onek San Juan diruri,
Ez da San Juan bañan ala alunbra bedi.
Guazen San Juanera gaur arratsian
Etorriko gerala biar goizian.*

19. SATRUSTEGI, José M^a. "Solsticio de invierno". 170. or.

*Guazen San Juanera berduratara,
berduratara eta han egotera.
Juan nintzan Fraitzira etorri mayatzian,
Zalditxo urdiñian astuaren gainian.*

*San Juango iturriaren ondoti
Zazpi iturri urre kainuetatik,
Zortzigarrena metal zurietatik,
Zortzigarrena metal zurietatik.*

*San Juango iturriyen dago ura berde,
Amurraitxo freskuak antxen dirade;
Lamizko eskuek eta gero musua,
San Juango iturriaren freskua!*

*Jesukristoren lengusuba da
Aita San Juan Bautista,
Aingeruak dantzan dabilta,
San Juanen pozian dabilta!*

*Andra mutur maketsa,
Aingeruak dantzan dabilta;
Dabilta baya dabilta,
San Juanen pozian dabilta.*

*San Juan garragarrilian
Denbora galantian!
Maizik eta garik ez dagonian etxian!²⁰*

Burunda guztitik eta beste leku askotatik etorririko erromesak biltzen ziren Ziordian, bertako ur mineraleko iturriaren inguru, erreuma minak sendatu nahiz. Olaztiko gazteak bezperatik hara joanik, gitarra eta bandurriekin, sua pizten zuten eta goizeko lehen orduetan meza entzutera joaten ziren Belen ermitara. Han beren auzokoekin bidurik, herrira itzultzen ziren txistua-
ren konpasean.

Arbizun San Joan egunean (ekainaren 24an) prozesio goiztiarra egiteko ohitura zegoen; inguruko ermita batera joan ohi ziren, Udala eta herriko banderarekin batera. Ibilbidean zehar suziriak botatzen zituzten eta zortziko baten doinuarekin amaitzen zen prozesioa. Arratsaldean, mutilek barkilloak eta *piper opilak* jaten zituzten bitartean, *Aurreskua* dantzatzen zuten gaitarien soinu eta *Viva el Alcalde!* oihuarekin amaitzen zen ekitaldia. Zaindariaren ohorezko jaiek hiru egun irauten zuten, eta azkenekoa ezkonduena zen. Egun berean Bakaiku, Uharte-Arakil, Ihabar eta Unanu herriek ospatzen dituzte beren jaiak.

20. AZKUE, Resurrección M^a. "Cancionero popular vasco". II. libk. *Romances y cuentos* 883. zk. 975-976. or. Satrustegiren oharra E-32-33. or. eta Urdiainen 1977an bilduriko ahozko informazioarekin erkatua.

Arruazun, San Pedrotan (ekainaren 29an), gaitarien doinuz dantzatzen zuten beren *Larrain dantza* edo *Zortziko* tradizionala, hiru egunetan zehar. Ziordian, egun horretan ere, *Zortziko* tipikoa dantzatzen zuten, Santa Luzia ermitan lehenbizi, eta gero eliz atarian zenbait aldiz (alkatea lehenik).

San Pedro egunean Altsasun eta ondoko igandean Urdiainen, zaindarien jaietan, bi herriena den ermitara egiten dute urteko erromeria. Egun batean batzuko eta bestean auzoko herrikoak, udalbatza eta apaizak bildu eta erromesaldian joan ohi dira patroï santuaren ermitara txistulariaren soinua- ren atzetik. Hara iritsitakoan, meza entzuten dute, auzoko udaleko agintariak bai mezara eta bai ondoko bazkarira gonbidatzen dituztela. Bazkariaren aurretik, zelaia erromesez betetzen dira eta zilarrezko kikaretan edo barkillo- etan hartzen dituzte anfitrinoa den udalbatzak eskainitako ardoa eta zigarro puruak. Bazkaria amaitu ondoren, Altsasuko *Zortzikoa* edo Urdiaingo *Giza dantza* hasten da, dela alkateak, sukaldariari betiko gonbita eginez, dela herriko mutilek abiatzen dutela.

ZAINDARIAREN JAJETAKO ZIKLOA ETA ZORTZIKOA

Hainbat herritako zaindarien jaien arteko lotura eta guztiona dena aztertu- ko dugu atal honetan, hots, modu generikoan *Zortzikoa* deituko dugun dantza. Sakanako herrietako zaindarien jaiak besta egutegi osoan zehar banaturik ageri dira, eta hiru edo lau eguneko iraupena izan ohi zuten. Dantza soziala zen jaieta- ko ekitaldirik herrikoien eta tradizionalenetako bat, bertan mutilek (elkartekoak izan edo ez), neska gazteek eta udaleko agintariak esku hartzen zutela. Ageri- koa gertatzen da gazteen elkartze mailak zaindarien jaiaren ospakizunarekin edo dantza beraren garapenarekin duen erlazioa. Koreografia, orokorra eta parti- kularra ere, aski antzekoa da eskualde osoan zehar, eta izendatzeko era desber- dina bada ere, zenbait doinu antzekoak dira, janzkiak ez dira oso desberdinak eta aurreko edo ondoko erritualek elkarren antza izan ohi dute, egituraz edo for- maz. Azken buruan, gure ustetan, azterturiko eskualdeko zati handi batean komuna den *gizarte gertakari* bat dela esan dezakegu.

Altsasun, goian adierazi bezala, Santa Agedan eta zaindarien jaietan, San Pedrotan, dantzatu ohi dute bertako *Zortzikoa*. Koreografia orokorrean, *Zortziko* hori mutilak bikoteka jarriz hasten da (eskutik loturik), eta doinua jotzean jauzi egiten dute aurrez aurre jartzen direla. Doinua amaiturik, lehen biek zubi bat egiten dute eta haren azpitik pasatzen dira gainerakoak. Ondo- ren, lehenaren bakarkako dantza dator, atzean duen ilarari begiratzen diola. Bitartean, azken biak aurrekoak eskaturiko neskaren bila joan dira; neska aurkezten diote eta hark dantzatzera gonbidatzen du, lepoko batez berekin elkartzea eskainiz eta erreberentzia batez agur eginez.

Lehen, gainerako neskak taldean sartu eta mutilen artean txandaka jartzen ziren, baina gaur egun zuzenean ateratzen dira *fandangoa* eta *arin-arina* dantza- tzera. Pieza bi horiek amaiturik, duela urte batzuk udaltzainak ardoa banatzen zuen lurrezko pitxer batean, zilarrezko kikanan zerbitzatua. Gaur egun *kinto* batzuk arduratzen dira horretaz edo, bestela, zenbait mutilek banatzen dute,

erromerian dantza egiten den bitartean. Neskak dantzari erantsirik, aurreskuak berriro ekiten dio dantzari, baina aurrera begira oraingoan. Txistulariak *Zortzikoa* jotzen du eta, jai testuinguruaren arabera, *kinto* batek, alkateak, zinegotzi batek edo mutilek zuzenduko dute dantza. Dantza hori zenbait aldiz errepikatzen da, harik eta *kinto* guztiek auresku gisa dantzatuko duten arte, edo San Pedroko erromeriaren kasuan, nahikoa irizten dioten arte.

Arbizun, *Zortziko* hori *Auresku* izenez ezagutzen dute, eta baita *Maria Lonbreran Zaldiya* deitzen dute, hori baita dantza hau dantzatzeko erabiltzen den doinu bakarrari bertan egokituriko bertso baten hasiera. San Joan zaindariaren jaietan tokiko plazaren lau aldeetan dantzatzen zen. Gaitariak jo ohi zuten dantzaren doinua. Neska-mutilak lepoko gorrien bidez loturik, lehen bikoteak plazako lau guneetan dantzatzen zuten eta, saio hori amaiturik, zubi bat egin eta bertatik pasatzen ziren gainerakoak.

Arruazuk ere *Zortzikoa* ezagutu zuen, *Larrain dantza* ere deitua osatzen zuten dantzen anbiguotasunagatik. Gaitariak jotzen zuten, Lizarratik etorritakoak izan edo Etxarri-Aranatzeko Carasatorre familiakoak izan. San Pedro jaietako hiru egunetan dantzatzen zen. Iltaran (lepokoen bidez loturik) ezartzen ziren gazteriarren maiordomo biak, horien laguntzaileak eta horien guztien bikotekideak. *Zortzikoa*, zentzu hertsian, lehen bikoteak dantzatzen zuten eta, ondoren, kalejira moduko bat zetorren, halako eran non, bi ilaratan ezarriarik, lepokoen azpitik edo horiek moldatzen zuten gangaren azpitik pasatzen ziren. Era horretara edo kate itxuran, herria zeharkatzen zuten ostaturaino, non freskagarriren bat hartu ohi zuten. Gero jota edo fandangoa eta *purrusalda* zetozen. Txapelan zeramatzen zetazko xingola koloretakoak ziren maiordomoaren bereizgarriak, bai eta paparean gurutzaturiko bi xingola urdin, zeintzuk bakarra bihurtu ohi zuten laguntzaileek. Maiordomo karguak musikariei jaten ematera eta dantzako txokolatada prestatzera behartzen zuen; horrek zekartzan gastu ugariak zirela eta, ez zen eskatzaile askorik biltzen zuten eginkizuna.

Etxarri-Aranatzeko *Dantzakia* deiturikoa, antza denez, nagusiak (maiordomoak, laguntzaileak eta beraien bikoteak) lotzen zituen ilara batez hasten zen; ondoren, *Zortzikoa* zetorren, maiordomoek dantzatua; beste bikote batzuk eransten ziren, arku edo zubia egin, bi ilara paraleloetan jarraitu, eta *fandango*, *purrusalda* eta *karrika dantzarekin* amaitzen zen. Antza denez, dantzak doinu pare bat eta *fandango zarra* deiturikoa zituen oinarri. Lehen doinuetariko batek bere hitzak zituen:

Aresoarren bandera
Ai, nolakua ote da?
Errekaldera eraman dute
Erakustera.
Andere txarrak idera
enorabuenak ematera
Al zuenak joan ziren
*iren itxera*²¹.

21. BIHOTZ ALAI, folklore taldea. "Lakuntzako Alkate dantza". Dantzariak 24. zk. 33. or. Etxarrin 1973an bilduriko ahozko datuak.



Lakuntzako Alkate dantza.

Lakuntzako tradizioaren arabera, *Alkate dantza* deiturikoa erritual desberdinez aurkezten zen San Sebastian zaindariaren jaietan eta Bestaberrin. Zaindariaren jaietan, mutilak jauzika eta txalo erritmikoak joz sartzen ziren plazan. Bestaberrin, bosgarren doinuarekin batera sartzen ziren, makilez elkarloturik, ilara bat moldatzen zutelara. Behin plazan zeudela, udal agintarien aurrean, edo mutilek bakarrik dantzatzen zituzten bost doinuak eta, behin neskak erantsirik, berriro dena errepikatu, edo azkeneko partea bakarrik egiten zuten. Hartarako, agintariek buru egiten zuten mahaiaren aurrean jarririk, lehen doinua hasten zen, lehen bikoteak bakarrik dantzatua (maiordomoak eta bikote kideak udalbatzakoren bat izan behar zuten ahaide), eta horrela egiten zuten plazako lau aldeetan. Bosgarren doinuan, ordea, hasierako lekuan ziren eta ikuskatzeko zubi bat moldatzen zuten. Zubi hori amaiturik, neskak lepoko lotuek egindako ilara desegin eta lepoko bana jartzen zuten mutilen lepoan (bestea neskek berek jartzen zuten). Ondoren, *fandangoa* eta *arin-arina* dantzatzen zituzten bi lerro paralelotan. Horiek bukatutakoan, agintariek ogi, gazta eta ardoaren gonbita egiten zieten.

Jarraian, *Ingurutxoak* dantzatzeari ekiten zioten aurrez aurreko bi ilaratan eta horien perpendikularrean. Dantza horretan eta *Alkate dantza* bukatzen duten bietan, kriskitinak erabiltzea ez zen gauza bakana. Lehen doinuak bazituen, beste hainbat herritan bezala, bere hitzak:

*Aresotarren bandera
Ai, nolakua ote da?
Erakustera eraman dute
Errekaldera.*

*Baita leizarrak bidera
Enorabuenak ematera
Astalarekin joan dirade
Ibaiak bera.*²²

Urdaingo Giza dantza bost edo sei aldiz ere dantzatu ohi zen igande arratsaldeetan, zenbait bestatan eta herriko jaietan. Gaur egun, San Pedro errepikatze eguneko erromerian besterik ez da egiten. Mutilak bikoteka ateratzean hasten da dantza, gero *aurrekua* dantzatzen dute ilararen norabideaz bestera eta erakustaldia amaiturik, zubi bat egiten dute, zeina, nesken bila joan behar duen azken dantzaria edo *azkendi*a pasatu ondoren ixten den. Neskak lepokoan bidez elkartzten zaizkie. Lehen biribilean jartzen ziren plazaren erdian eta *azkendiak* ardoa banatzen zuen: txistulariari lehenik, aureskulariari gero (honek neska lagunari eskaintzen zion eta neskak uko egiten zion edateari) eta, azkenik, gainerako bikoteei. Jarraian, *fandangoa* eta *porrusalda* edo *zakur dantza* zetozen. Gero, lehenak dantzatzen zuen berriro eta kalejira batez amaitzen zen ekitaldia.

Taldeko kiderik adintsuena izaten zen *aurrekua*. Txistulariari gazteek ordaintzen zioten (16 ogerleko edo 100 pezeta inguru) mutilen arteko *danderu* deituriko kobratzaileak eta nesketariko batek. Txistulariak etxez etxe biltzen zuen dirua urteko jai nagusietan. Giza dantza horren doinuen artean bada Leitzako *Belauntzikoaren* aldaera bat, honela dioena:

*Altsasuaren bandera
ai!, nolakua ote da?
Erreka aldera eraman dute
Erakustera.*

*Arratza ta fistua
danbolinaren soinua
danbolinari emateko
kunplimendua.*

*Tulariaren zaldia
salto ta brincolaria
eramaletako paratuko du
ardatzeko aria.*

*Ermaniko karrikan
atsua dago barrikan
anka bat gora bestea bera
bakar bakarrikan.*²³

Hiru bikotek dantzatzen zuten Ziordiko *Zortzikoa*: apaizak aukeraturiko bi *fiore*, urteko karguak eta Amabirjina prozesioan eramateko arduradunak, eta

22. BIHOTZ ALAI, folklore taldea. "Lakuntzako Alkate dantza". *Dantzariak* 24. zk. 33. or. Lakuntzako Emilio Anduezarren datuak, 1973an bildurikoak.

23. ARRARAS, Francisco. "Danzas de Navarra". *Dantzariak* 3. zk. 24. or.

laguntzaile bat, frioreek aukeratua. Herriko eliz atarian, San Pedro egunean, alkatea zen lehen dantzako burua, eta ondoren *friore* bien eta laguntzailearen dantza zetorren. Lehenak *zortziko* horren zati bat dantzatzen zuen eta amaitzear zegoenean, azkena nesken bila joaten zen. Katea moldatzen dute eta lehenak bigarren zatiari ekiten dio. Amaitzeko, fandangoa dantzatzen dute, bi lerro paralelotan, eta lurrean uzten dituzte loturazko lepokoak.

Eskualdean ezagutu eta dantzatu diren *Zortziko*en artean, datu gutxi iritsi zaizkigu Hiriberri-Arakil, Ihabar eta Iturmendikoez.

24

Ziordiko Zortziko

The image shows a musical score for a piece titled "Ziordiko Zortziko". It consists of seven staves of music written in a single system. The notation is complex, featuring many sixteenth and thirty-second notes, typical of traditional folk dances. The score is enclosed in a rectangular box. At the top right of the page, outside the box, is the number "24".

Karmen egunean (uztailaren 16a), jaiak ospatzen ditu Iturmendik. Uharte-Arakilen, abuztuko lehen igandean erromerian doaz San Donatoren ermitara. Etxarri-Aranatzen, abuztuaren 15ean, erromerian joaten dira Zumarretako Erremedioetako Ama Birjinaren ermitaraino. Lakuntzak San Bartolome egunean (abuztuaren 24a) ospatzen ditu herriko jaiak, eta abuztuko hirugarren igandean (*Amaletari*) Aralarko San Migelera igotzen dira eta han Lakuntzako pertzari buruzko elezahar atsegina gogoratzen dute.

Iraileko lehen igandean, Aralarko San Migel santutegian, *absoluzioak* ospatzen dituzte. Ihabarren, irailaren lehenean San Esteban ospatzen da. Ziordiko zaindariaren jaiak Iraileko Ama Birjinari eskaintzen zaizkio (irailaren 8an), eta egun horretan ere zaindairaren jaiak izaten ditu Zuazuk. Altsasukoak irailaren 14an ospatzen dira, eta Aralarko San Migelen jaia ilabete bereko 29an.

24. IRUÑA taldea (Alazne Martínez), "Zortziko de Ziordi". *Dantzariak* 15. zk. musika orriak. Eugenio Aguirreri harturiko doinua.

BIBLIOGRAFIA

- ARANBURU URTASUN, Mikel. "Danzas y bailes en Navarra". Non: *Temas de Navarra*, 15. zkia. Iruña: Nafarroako Gobernua, 2000.
- ARGAIZ, Serafín. "Arbizuko Aurrekua". Non: *Dantzariak*, 44. zkia.. Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 1989.
- ARIZMENDI AMIEL, M^a Elena. *Vascos y Trajes*, Donostia: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian, 1976.
- ARRARÁS, Francisco. *Danzas e indumentaria de Navarra*, Iruña: Nafarroako Gobernua, 1987.
- ASTIZ, Miguel Ángel; BALEZTENA, Dolores. *Romerías navarras*, Iruña: Regino Bescansa, 1944.
- AZKUE, Resurrección M^a de. *Cancionero Popular Vasco*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- BIHOTZ ALAI FOLKLORE TALDEA. "Lakuntzako Alkate dantza". En: *Dantzariak*, 25. zkia. Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 1983.
- FELIÚ CORCUERA, Alfredo "Zinzarri". *Euskadi insólita*. Donostia: Haramburu, 1980.
- FELIÚ CORCUERA, Alfredo "Zinzarri". *Gure Herria* (4 lib.). Donostia: Kriselu, 1987.
- IRUÑA TALDEA. "Arrazuko Larrain dantza". Non: *Dantzariak*, 11. zkia. Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 1979.
- IRUÑA TALDEA. "Ziordiako Zortzikoa". Non: *Dantzariak*, 15. zkia. Bilbo: Euskal Dantzarien Biltzarra, 1980.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Iñauteria/El Carnaval Vasco*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones, 1973.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Carnaval en Navarra*. Donostia: Haramburu, 1984.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan. *Ritos de Solsticio de Verano* (2 lib.). Donostia: Kriselu, 1987-88.
- JIMENO JURÍO, José María. "Calendario festivo. Invierno". Non: *Panorama*, 10. zkia. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1988.
- JIMENO JURÍO, José María. "Calendario festivo. Primavera". Non: *Panorama*, 15. zkia. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1990.
- PEÑA SANTIAGO, Luis Pedro. *Fiestas, costumbres y leyendas de Navarra*. Donostia: Txertoa, 1984.
- SATRUSTEGUI, José María. *Solsticio de Invierno*. Iruña: El Diario de Navarra, 1984.
- SATRUSTEGUI, José María. *Solsticio de Invierno*. Iruña: [s.n.], 1988.
- SATRUSTEGUI, José María. *Mitos y creencias*. Donostia: Orain, 1995.
- TIBERIO, Francisco Javier; OTERMÍN, Luis. "Carnavales de Navarra". Non: *Temas de Navarra*, 6. zkia. Iruña: Nafarroako Gobernua, 1993.



Folklore de la Sakana



Josu **Larrinaga** Zugadi